

BATTERY-DROP

Diru-iturriak

Argi dago, enpresa bat jartzean irabazi iturrietan pentsatzea garrantzitsua dela. Honek ekarriko digu inbertitzeko eta proiektua aurrera ateratzeko ahalmena eta eskaintzen dugun produktuaren truke, bezeroak zenbat emango digun zehaztu behar dugu. Bi sarrera mota daudenez, bat egokituko da guztiz gure enpresara.

Kasu hontan, aplikazio bat denez, ez dugu zuzenean izango bezeroarekin harremana; hortaz, ordainketa errepikarien bidezko sarrerek izango ditugu. Gure produktua diru baten truke eskainiko dugu lehen aipatutako elkarteetan eta haiek aplikazioari etorkizuna ikusten badiote, diru kantitate bat eskainiko digute eta lehenengo diru-sarrera izango da. Gainera, aplikazioa ezagutzera eman beharko dugu, horregatik, publizitatea sortuko dugu. Publizitate horrekin lortutako dirua ere irabazia izango da gure enpresarentzat. Honela, hainbat eremuekin gertatzen da eta horiek izango dira gure irabazi-iturriak. Honetaz gain, lehen aipatutako diru-sarrerek izango ditugu aplikazioaren barruan. "Premium" atala nahi dutenek diru kantitate bat ordaindu beharko dute.